



## BEZEROEKIKO HARREMANA

Nola hasi eta mantendu bezeroekiko harremanak:

Harreman motak presentziala, aurrez aurrekoa eta web-gunearen bidez izango dira. Bezeroekiko harreman mota anitzak daude:

### PRESENTZIALA

- Laguntza pertsonala
  - Aurrez aurreko arretan informazio pertsonalizatua eman , duen beharren arabera produktu egokiena zein den aholkuak emateko..
  - Autodefentsa saioetan emakumeak\* ahalduntzeko saioak izango dira
  - Harremanetan gauden elkarte feminista ezberdinen kontaktua eta informazioa eskainiko diegu.
- Auto-zerbitzua
  - Lokalean bertan, egongo diren ekintzen berri izateko aukera izango dute, agenda kontsultatu ezker.
  - Elkarte edo talde feminista ezberdinen materiala ikusgai ere egongo da.
- Komunitatea
  - komunitatearen osatze eta batze lana ere inplizituki burutuko dugu. Gai beraren inguruan interesa duten emakumeak\* saretuko direlako, harremanetan jarriz, eta bakoitzak egiten duen jardunaren berri emanez. Azken finean koordinazio funtzio bat beteko du gure lokalak, informazio eta formazio gune bat osatuz. Konfiantzazko gune seguru bat izango da hurbilduko dutenentzat.

### AUTOMATIZATUA

- Laguntza
  - Gure web gunean, gure enpresaren berri izateaz gain, gurekin zuzenean harremanetan sartzeko aukera egongo da, email bitartez.
- Autozerbitzua
  - Erregistratu ondorengo sarbidean, katalogoan dauden objektu guztiak kontsultatzeko aukera egongo da, bai eta hurrengo hilabeteetan egongo diren tailerren berri izango dute.
- Komunitatea
  - Erregistratu ondorengo gunean, foro ireki bat egongo da, sartzeko bertan parte hartzen dutenak, eta konfiantza gune bat sortzeko.